
ARABAKO
BERTSO
KUADRILLA
ARTEKOA
2014
WIKINGOAK
GASTEIZ
mendialdeko
bertso
eskola
www.bertsozale.com/araba

## 30 urte baino gehiago

30 urte baino gehiago igaro dira Arabako lehenengo bertso-eskolak sortu zirenetik. Ez dira, ordea, alferrik igaro, hamaika gauza egin ditugu. 1982.urtean Gasteizen eta Aiaran bertso-eskolak abiatu zirenetik bideak ez du etenik izan. 30 zenbakiak adierazten duen bezala, Araban bertsolaritzak egindako lana bihurria eta borobila da. 80.hamarkadan Abel Enbeita zen Araban bertsolari bakarra, familia bizkaitar eta bertsozalea izaki Gasteiz eta Araban zehar bertsolaritza sustraitzeari ekin zion. Gasteizko Txusta tabernan eta Aretako Tunel jatetxean astero-astero elkartzen ziren kantuan Gasteiz eta Aiarako bertsozaleak. Geroztik, makina bat belaunaldi, proiektu eta herri ukitu ditu bertsoak.

Dagoeneko, 150 bertso-saio inguru antolatzen dira Araban, hezkuntza arautuan 2200 haurrek ikasten dute bertsolaritza 41 ikastetxetan. Familia handitzen ari da; duela 30 urte bi bertso eskola zeuden, aurten 13 herritan 29 talde eta adin ezberdineko 190 partehartzaile.

## 2014ko Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa




Gauzak zapata-kaxatan gordetzeko ohiturarik baduzu? Guk bai. Bat badugu, berezia, gauez distira egiten duena, ganbaran gordetzen dugunean zaratatxoak egiten dituena. Eta barruan gorde ditugu:

Printzipalean, finalaren aurretik, back-stagean entzundako urduritasun-taperen bat; jotzen duten bakoitzean haustera doala ematen duen baina inoiz hausten ez den bonbo bat; Irlandako aire (ez euriz; wiskiz) bustia arnasten duen gitarra bat; gutxien uste duzunean eta gutxien uste duzunari entzundako bertso bikaina; bere hots partikular beste ezerekin konparatu ezin dena lortu duen soinu-ekipo zahar bat; saio osteko ke artean emandako besarkada bat; eskolarteko-usainean datozen begi harritu bi; ardo ondu botila batzuk; urrun egon arren bertan dauden lagun bat baino gehiago; gozamen-dosi txikiak ugari.

Gure zapata-kaxa ez da sekula itxita egon; sartu-atera konstantean dabiltza gauzak. Baina 2014ko negu-udaberrian, buelta eman eta bertan dagoen guztia erortzen eta barreiatzen utziko dugu.

Badator 2014ko Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa.

**URTARRILAK 18, LARUNBATA, AGURAIN, ZABALARTE ETXEA, 10:30, AURKEZPENA**

# SAIOZ SAIO



**Otsailak 1, larunbata,**
Legutio, Bazkaria, Albertia elkartea, 14:00

**Otsailak 1, larunbata,**
Gasteiz, Merendua, Errexala elkartea, 19:00

**Otsailak 7, ostirala,**
Gasteiz, Merendua, Landatxo elkartea, 20:30

**Otsailak 8, larunbata,**
Izarra, bazkaria, Behekoitu-rri elkartea, 14:00

**Otsailak 14, ostirala,**
Atauri, Afaria, Antzinako eskoletan, 21:00

**Otsailak 15, larunbata,**
Aramaio, Bazkaria, Marixeka elkartea, 14:00

**Otsailak 15, larunbata,**
Ozaeta, Afaria, Perretxiko Elkartea, 21:30

**Otsailak 15, larunbata,**
Oion, bazkaria, Azkenak elkartea, 14:30

**Otsailak 15, larunbata,**
Saratxo, bazkaria, Saratxo Elkartean, 14:00

**Otsailak 21, ostirala**
Agurain, poteoa, San Juan plazatik hasita, 20:00

**Otsailak 22, larunbata,**
Legutio, Poteoa, Herriko plazatik hasita, 19:00

**Otsailak 22, larunbata,**
Gasteiz, Poteoa, Aizkora tabernatik hasita, 19:30

**Otsailak 22, larunbata,**
Gasteiz, Afaria, Kinkienea elkartea, 20:30

**Martxoak 8, larunbata,**
Izarra, Bazkaria, Behekoiturri elkartea, 14:00

**Martxoak 8, larunbata,**
Zalduondo, Bazkaria, Zeledon txiki elkartea, 14:00

**Martxoak 15, larunbata,**
Gasteiz, Bazkaria, kukubarre elkartea, 14:00

**Martxoak 21, ostirala,**
Amurrio, Afaria, Reforreko txakolin elkartearen txokoa, 21:00

**Martxoak 22, larunbata,**
Araia, Bazkaria, Araiako Igerilekuetako tabernan, 14:00

**Martxoak 29, larunbata,**
Aramaio, Bazkaria – lehia, San Martin eskolan, 14:00

**APIRILAK 5, LARUNBATA, AGURAIN, EGUN OSOKO FESTA**

# ZERGATIK SAILKAPENIK GABE, AUTOGESTIONATUA, HERRIKOIA ETA TALDEKA?

Helburu nagusia parte hartzea sustatzea izanda, idatzizko eta bat-bateko talde guztiei parte hartzeko aukera berberak eskainiko dizkio Kuadrilla arteko honek. Ondorioz, taldeak ez dira kanporatuko, ez da sailkapenik egongo, talde mailaketarik ez... Eta azkeneko egunak topaketa izaera izango du; apirilaren 5ean talde guztiek izango dute kantatzeko aukera. Parte hartzeko sistema honek ahalbideratzen du bertso kuadrilla guztien egoerara eta izaerara egokitzea. Arabako taldeen izaeraren aniztasuna eta bertso-saio formatuen aniztasuna errespetatzen ditu.

Parte hartzeko sistema honek autogestiorako atea irekitzen du. Bat-bateko talde bakoitzak erabakiko du zenbat saio antolatu nahi dituen, bi taldeen arteko saioa zein formatutan egin nahi duen, zenbat aldiz kantatu nahi duen Kuadrilla artekoan eta norekin kantatu nahi duen. Taldekideak eta baliabide teknikoak bilatuko ditu, herriari eta eskualdeari bere saioen berri emango dio eta nahi duen neurrian hedapena egingo du. Arabako bertsolaritzaren etorkizuna autogestioan datza.

Era berean, bertsotan egitera bultzatzea da helburua, eta ez bakarrik bertsolari osoa izatera iristeko: idatziz edo bat-batean, norberaren maila kontuan hartu gabe, nahi duenak sortu ahal izango du. Bertsotan lagun artean egin, herrian sortutako bertsolariak herriarentzat kontuan. Bertsozaletasuna herritik abiatu nahi dugu, herriko bertsolariak baloratu eta bertsolaritza herrikoia sustatu.

Bertsolaritzaren mugimenduak berezko duen izaera kolektiboa indartzeko asmoz bertsolaritzaren eragile ezberdinek (bertsozaleek, bertsolariek, gai-jartzaileek...) taldeka hartuko dute parte. Norbanakoa kolektibo baten parte sentiaraztea, bertso-eskola dela, Arabako bertsolaritza dela... Kolektiboa aurrera ateratzeko borondatezko inplikazioa beharrezkoa da.





# BAT-BATEKO TALDEAK






Taldeak

Arabako eskualde edo herri bereko jendez osatu dira. Hiru bertsolari, gutxienez, egon behar dira taldean. Gai-jartzailearekin, soinu ekipo eta bideo arduradunekin, argazkilari/kazetariekin eta trikitilari/musikariekin, sukaldariekin... osatuko dute taldea. Guztira 11-14 lagun.

Bat-bateko talde batek saio bat edo bi antolatuko ditu bere herrian edo eskualdean. Beste talde bat gonbidatuko du, eta bien artean adostuko dute saioaren formatua. Antolatzen duen taldeak komunikatu, egindakoa jaso eta hedatu egingo du.

Arabako bertso-eskoletan oinarritutako 15 talde, guztira 150 lagun inguru.

# IDATZIZKOA

Lagunartean bertsoak idatzi eta herrian antolatuko den saioan jendearen aurrean edo jendearekin kantatu, kexatu, alaitu, aldarrikatu eta goxatu.

Arabako izaera ezberdineko 16 taldek hartuko dute parte, besteak beste: euskara elkarteak, mintzalagun taldeak, lagun koadrilak, gazte asanbladak, euskaltegiak, bertso- eskolak, abesbatzak, gaztetxeak, musikariak.

### Bertsolaritzaren aldarrikapen soziala

Bertsogintza komunikatzeko ekintza bat da, entretenimendurako egokia. Baina, bertsolari edo gai-jartzaileen eskuetan, ideologia ezberdinak komunikatzeko ere balio du, bertsolari eta gai-jartzaile bezain beste ideologia egon daiteke. 1960.urtetik aurrera bertsolaritza errepresio sozialaren aurkako aldarrikapen bide bihurtu zen. Gaur, bertsolariek eta gai-jartzaileek erantzukizun honi erantzun behar diote, 2006ko bertsolaritzaren inguruko ikerketa soziologikoan bertsozaleek horrela adierazi zuten eta.

# ARABAKO ERRIOXA ESKUALDEA

Arabako Errioxan bertso-eskola bat dago, Oionen, helduen talde bat. Hiru bertsolari daude eta urtero 8-10 bertso-saio antolatzen dira. Lau ikastetxetan lantzen da bertsolaritza: Oionen, Bastidan, Lantziegon eta Lapueblan. Guztira, 10-12 urteko 120 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko talde batek eta idatzizko beste batek hartuko dute parte. Saio bat antolatuko du Txandrio Bertso-Eskolak.

## BAT-BATEKO TALDEA

### ARABAKO ERRIOXAKO "TXANDRIO"

Orlando Arreitunandia, Iker Olabarrieta, Unai Bengoetxea, Edurne Azkarate, Endika Sarabia, Arantxa Sobrino, Alazne Garcia, Mikel Fernandez de Arroiabe, Ibai Roitegi, Idoia Marauri, Uxue Fernandez-Andes, Virginia Eusebio



## EGUTEGIA

Otsailak 15, larunbata, Oion, bazkaria, Azkenak elkartea, 14:30,

Bat-bateko taldeak:
Txandrio - Arabako Errioxa eta Zeledonen seme-alabak - Zalduondo, 15 euro, izena emateko 600083476,
Idatzizko taldea:
Oiana,
Antolatzailea:
Txandrio - Arabako Errioxa

## IDATZIZKO TALDEA

### OIANA



# MENDIALDEKO ESKUALDEA

## BAT-BATEKO TALDEA



MENDIALDEA

Mikel Amezkua, Fernando Antia "Txiki", Ana Hernandez, Itxaso Balza de Vallejo, Eli Plazaola, Lore Beroiz, Irati León, Rakel Conde, Carlos Garcia de Eulate "Naparra", Julen Zulaika

Arabako Mendialdean bertso-eskola bat dago, Kanpezun. Bi talde daude: heldu eta gazteen talde bat, eta 10-12 urteko gaztetxoen talde bat. Plazatan kantatzen duen bertsolari bat dago eta urtero 4-5 bertso-saio antolatzen dira eskualdean.
Hiru ikastetxetan lantzen da bertsolaritza: Maeztu eta Kanpezuko eskolan eta institutuan. Guztira, 10-12 urteko 84 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko eta idatzizko talde banak hartuko dute parte . Saio bat antolatuko du bat-bateko taldeak.

## EGUTEGIA

Otsailak 14, ostirala, Atauri,
Afaria, Antzinako eskoletan, 21:00,

Bat-bateko taldeak:
Mendialdea eta Errexala — Gasteiz,
10 euro, izena emateko 635711019,
Idatzizko taldea:
Mendialdeko bertso-eskola,
Antolatzailea:
Mendialdea

## IDATZIZKO TALDEA

MENDIALDEKO BERTSO-ESKOLA

mendialdeko bertso eskola

# LAUTADA esp

Lautadan 3 bertso-eskola daude: Agurainen, Zalduondon eta Araian. Adin guztietako 45 lagun 7 taldetan banatuta. Plazatan kantatzen duten 7 bertsolari daude eta urtero 25 bertso-saio inguru antolatzen dira.
Agurain, Araia, eta Dulantziko 4 ikastetxetan lantzen da bertsolaritza, guztira, 10-12 urteko 245 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko 2 taldek eta idatzizko 5 taldek hartuko dute parte. Lau saio antolatuko dituzte Lautadako Bertso-Eskolek.

## BAT-BATEKO TALDEAK

### ZELEDONEN SEME-ALABAK–ZALDUONDO



Oier Suarez, Jon Ruiz de Pinedo, Iker Pastor, Egoitz Iradier, Irati Ruiz de Pinedo, Aitor Najera, Irati Hernandez, Celsi Martinez de Albeniz, Naur Jungitu, Ricardo Najera, Markel Yoller, Gustavo Fernandez, Aitana Iradier, Iker Lozano

### SORGINETXE–AGURAIN



Oier Arbina, Josu Campo, Oihane perea, Pablo Jausoro, Muhamadu Ladur, Martin Espiñeira, Xabi Goikuria, Leire Lopez de Aberasturi, Jere Martinez, Sergio Cano, Beñat Ibarreta

## EGUTEGIA

**Otsailak 15, larunbata, Ozaeta,**
Afaria, Perretxiko Elkartea, 21:30,
**Bat-bateko taldeak:**
Sorginetxe – Agurain eta Aiaraldea,
15 euro, izena emateko 667310082,
**Idatzizko taldeak:**
The Rotabators eta Aguraingo Gazte Asanblada
**Antolatzailea:**
Sorginetxe – Agurain

**Otsailak 21, ostirala, Agurain,**
poteoa, San Juan plazatik hasita, 20:30,
**Bat-bateko taldeak:**
Sorginetxe – Agurain, Bertxotxoak eta Zeledonen seme-alabak-Zalduondo,
**Idatzizko taldeak:**
Txor eta Tan,
**Antolatzailea:**
Sorginetxe – Agurain

KUALDEA

# IDATZIZKO TALDEAK

TXOR ETA TAN–IGURAIN



GAZTE ASANBLADA–IGURAIN



THE ROTABATORS–IGURAIN



ZALDUONDOKO BERTSO-ESKOLA

MARISORO ZALDUONDOKO EUSKARA TALDEA

MARISORO EUSKARA TALDEA- ZALDUONDO

Zalduondoko bertso-eskola

## EGUTEGIA

Martxoak 8, larunbata, Zalduondo, Bazkaria, Zeledon txiki elkartea, 14:00,

Bat-bateko taldeak:
Zeledonen seme-alabak – Zalduondo eta Sorginetxe – Agurain, 15 euro, izena emateko 680996358
Idatzizko taldea:
Zalduondoko bertso-eskola,
Antolatzailea:
Zeledonen seme-alabak – Zalduondo

Martxoak 22, larunbata, Araia, Bazkaria, Araiako Igerilekuetako tabernan, 14:00,

Bat-bateko taldeak:
Zeledonen seme-alabak – Zalduondo eta Zabala eta estuak – Gasteiz, 15 euro, izena emateko 680996358,
Idatzizko taldea:
Marisoro,
Antolatzailea:
Zeledonen seme-alabak – Zalduondo

# GORBEIALDEA

## ESKUALDEA

Gorbeialdean 4 bertso-eskola daude: Legution, Aramaion, Izarran eta Murgian. Adin guztietako 46 lagun 8 taldetan banatuta. Plazatan kantatzen duten 10 bertsolari daude eta urtero 40 bertso-saio inguru antolatzen dira.

Aramaio, Legutio, Murgia, Izarra eta Zigoitiko ikastetxeetan lantzen da bertsolaritza, guztira, 10-12 urtetako 162 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko 4 taldek eta idatzizko 2 taldek parte hartuko dute. Sei saio antolatuko dituzte.

## BAT-BATEKO TALDEAK

### URKABUSTAIZ

Asier Zubizarreta, Aitor Jimenez, Maite Murga, Olatz Bayer, Zigor Enbeita, Unai Gomez, Olatz Santolcides, Oier Enbeita



### UNIBERTSOLARIAK–ARAMAIO

Maria Izaga, Sabin Aranburu, Beñat Burgi, Peru Abarrategi, Paula Amilburu, Jon Izaga, Maider Aldai, Izar Elorza, Jone Fu, Miren Heriz



### BOSTIBAIETA BERTSOTAN–LEGUTIO

Iñaki Lertxundi, Maria Fuentes, Cristina Puelles, Josu Ormaetxea, Ibai Perez, Jon Losada, Jokin Cifuentes, Lorea Fernandez, Markel Berzal



### ARAMAIOKO GARRATZAK



Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Iker Agirre, Lierni Altuna, Gillen Agirre, Oier Kortabarria, Mikel Ruiz de Azua, Jone Arriolabengoa, Eskarne Ugarte, Iker Elexpuru

# IDATZIZKO TALDEAK

## URKABUSTAIZ GAZTE ASANBLADA



## LEGUTIOKO BERTSO-ESKOLA




## EGUTEGIA

**Otsailak 1, larunbata, Legutio,**
Bazkaria, Albertia elkartea, 14:00,

**Bat-bateko taldeak:**
Bostibaieta — Legutio eta Bapateroak — Gasteiz, 12 euro, izena emateko 638 989 851
**Idatzizko taldea:**
Legutioko Bertso-eskola,
**Antolatzailea:**
Bostibaieta — Legutio

**Otsailak 8, larunbata, Izarra,**
Bazkaria, Behekoiturri elkartea, 14:00,
**Bat-bateko taldeak:**
Urkabustaiz eta Sorgi-netxe — Agurain, 15euro, izena emateko 665700097
**Idatzizko taldea:**
Gazte asanblada,
**Antolatzailea:**
Urkabustaiz

**Otsailak 15, larunbata, Aramaio,** Bazkaria, Marixeka elkartea, 14:00,
**Bat-bateko taldeak:**
Aramaioko Garratzak eta Aizkorak Zorroztu — Gasteiz, 12 euro, izena emateko 688627089,
**Antolatzailea:**
Aramaioko Garratzak

**Otsailak 22, larunbata, Legutio,** Poteoa, Herriko plazatik hasita, 19:00,
**Bat-bateko taldeak:**
Bostibaieta — Legutio eta Urkabustaiz,
**Antolatzailea:**
Bostibaieta — Legutio

**Martxoak 8, larunbata, Izarra,** Bazkaria, Behekoiturri elkartea, 14:00,
**Bat-bateko taldeak:**
Urkabustaiz eta Amurrio, 15 euro, izena emateko 665700097,
**Antolatzailea:**
Urkabustaiz

**Martxoak 29, larunbata, Aramaio,** Bazkaria — lehia, San Martin eskolan, 14:00,
**Bat-bateko taldeak:**
Unibertsolariak — Aramaio eta Aramaioko Garratzak, 10 euro, izena emateko, 688683942,
**Antolatzailea:**
Unibertsolariak — Aramaio

# GASTEIZ ESKUALDEA

Gasteizen 6 bertso-gune daude. Adin guztietako 99 lagun 9 taldetan banatuta. Plazatan kantatzen duten 17 bertsolari daude eta urtero 60 bertso-saio inguru antolatzen dira. 9 ikastetxetan lantzen da bertsolaritza, guztira, 10-12 urteko 871 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik. Gasteizko 4 euskaltegietan ere lantzen da bertsolaritza, ikastorduetan irakasle baten eskutik. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko 5 taldek eta idatzizko 5 taldek hartuko dute parte. Bost saio antolatuko dira.

## BAT-BATEKO TALDEAK

### BAPATEKOAK

Jon Santxez, Maddalen Arrausi, Iñaki Tena, Unai Argote, Markel Okillas, Aitor Lopez, Javi Blanco, Markel Berzal, Ibai Ormeta



### AIZKORAK ZORROZTU

Jagoba Apaolaza, Ruben Sanchez, Irati Anda, Ander Solozabal, Kandi Anda, Egoiz Anda, Iñigo Alda, Adiran Bikendi, Irene Villanueva, Bittor Abasolo



### ERREXALA

Felipe Zelaieta, Koldo Fernandez de Retana, Ainara Balantzategi, Nieves del Alamo, Marta Ugarte, Veronica Domingo, Belen Uruturtxu, Fernando Sopelana, Asier Fernandez de Añastro, Ander Zabaleta



### ZABALA ETA ESTUAK

Koldobika Diaz de Mendibil, Andoni Ortiz de Elgea, Iñaki Viñaspre, Markel Eizagirre, Aritz Zabala, Aintze Laskurain, Iraide Fontaneda, Gorka Saez de Ibarra, Iker Etxeberria, Ander Salsamendi, Asier Lauzurika, Gorka Saez de Ibarra, Jon Terreros, Sonia Compañon



### BERTXOTXOAK



Maialen Saez de Ocariz, Uxue Ruiz de Arkaute, Amaia Lasaga, Maite Solozabal, Maialen Kortabarria, Itsaso Markaide, Ariane Fernandez, Amaiur Alijostes, Garazi Atxa, Selva Sagasti, Izaro Arbe

# IDATZIZKO TALDEAK



UDARREGITARRAL C.P. (CORPORATION)

OH SHIBARO BERTSO TEAM

**OhShibaro Bertso Team**

LEHIOTIK AT!



BERTSOAREN SALTSAN

WIKINGOAK

WIKINGOAK GASTEIZ

Bertsoaren Saltsan

## EGUTEGIA

*Otsailak 1, larunbata, Gasteiz,* Merendua, Errexala elkartea, 19:00,
*Bat-bateko taldeak:* Errexala – Gasteiz eta Urkabustaiz, 5 euro, izena emateko 610377353
*Idatzizko taldeak:* Bertsoaren saltsan eta Trebiñuko Gutxisolo Euskara Elkartea,
*Antolatzailea:* Errexala – Gasteiz

*Otsailak 7, ostirala, Gasteiz,* Merendua, Landatxo elkartea, 20:30,
*Bat-bateko taldeak:* Bertxotxoak – Gasteiz eta Unibertsolariak – Aramaio, 5 euro, izena emateko 692711877,
*Idatzizko taldea:* Lehiotik at!,
*Antolatzailea:* Bertxo-txoak – Gasteiz

*Otsailak 22, larunbata, Gasteiz,* Poteoa, Aizkora tabernatik hasita, 19:30,
*Bat-bateko taldeak:* Aizkorak Zorroztu – Gasteiz eta Txandrio – Arabako Errioxa,
*Idatzizko taldeak:* OhShibaro Bertso Team eta Añanan Euskara Mingainean Elkartea
*Antolatzailea:* Aizkorak Zorroztu – Gasteiz

*Otsailak 22, larunbata, Gasteiz,* Afaria, Kinkienea elkartea, 20:30,
*Bat-bateko taldeak:* Zabala eta estuak – Gasteiz eta Amurrio, 15 euro, izena emateko 688695875,
*Idatzizko taldea:* Udarregitarral C.P. (Corporation),
*Antolatzailea:* Zabala eta estuak – Gasteiz

*Martxoak 15, larunbata, Gasteiz,* Bazkaria, Kukubarre elkartea, 14:00,
*Bat-bateko taldeak:* Bapateroak – Gasteiz eta Mendialdea, 15 euro, izena emateko 603626927,
*Idatzizko taldea:* Wikingoak,
*Antolatzailea:* Bapateroak – Gasteiz

# AIARALDEA ESKUALDEA

Arabako
Aiaraldean 2 bertso-eskola daude, Amurrion eta Laudion. 21 partaide 4 taldetan banatuta. Bost bertsolari daude eta urtero 22 bertso-saio inguru antolatzen dira. Hamahiru ikastetxetan lantzen da bertsolaritza. Guztira, 10-12 urteko 625 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkarteko irakasle baten eskutik.2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan bat-bateko bi taldek eta idatzizko batek parte hartuko dute. Bi saio antolatu dituzte.

## BAT-BATEKO TALDEAK

### AMURRIO

Unai Mendibil, Asier Rubio, Asier Torres, Iñaki Cabeza, Unai Isasi, Alfredo Remirez



### AI ZAPOTXIN!-AIARALDEA

Iraia Aspuru, Izar Mendiguren, Julen Eizagirre, Ainhoa Comas, Nekane eta Oihane, Maddi Isasi



## IDATZIZKO TALDEA

### MITXOLETAK



## EGUTEGIA

Otsailak 15, larunbata, Saratxo, bazkaria, Saratxo Elkartean, 14:00,

Bat-bateko taldeak:
Amurrio eta Bostibaieta — Legutio, 10 euro,
izena emateko 606895739,
Antolatzailea:
Amurrio

Martxoak 21, ostirala, Amurrio, Afaria, Retorreko txakolin elkartearen txokoa, 21:00,

Bat-bateko taldeak:
Aiaraldea eta Bertxotxoak — Gasteiz, 10 euro, izena emateko 695787359 / 688682272,
Idatzizko taldea:
Mitxoletak—Amurrio
Antolatzailea:
Ai zapotxin — Aiaraldea

# TREBIÑU ESKUALDEA

Trebiñun Gutxisolo Euskara Elkarteari eta Euskara Zerbitzuari esker abiatu da bertsolaritza. Urtero 2-3 bertso-saio antolatzen dira. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan idatzizko talde batek hartuko du parte.

## IDATZIZKO TALDEA

GUTXISOLO EUSKARA ELKARTEA

# AÑANA ESKUALDEA

## IDATZIZKO TALDEA

AÑANAN EUSKARA MINGAINEAN ELKARTEA

Añanan bertsozaletasuna gorantza doa euskararen ezagutza eta erabileraren eskutik. Gobea, Langraitz eta Erribera Goitiako ikastetxeetan lantzen da bertsolaritza, guztira, 10-12 urteko 76 umek, hamabostean behin eta ikastorduetan, jasotzen dute bertsolaritza Arabako Bertsozale Elkartearen irakasle baten eskutik. Urtero 2-3 bertso-saio inguru antolatzen dira. 2014ko Arabako Kuadrilla arteko honetan idatzizko talde batek hartu du parte.



ARABAKO
BERTSO
KUADRILLA
2014
ARTEKOA
AGURAIN,
EGUN OSOKO FESTA
APIRILAK 5, LARUNBATA
11:00ETAN TXOSNAN
Hitzordua
ANDRAMARI PLAZAN 12:00ETAN
Bat-bateko eta idatzizko
taldeekin poteo ezberdinak
herri osoan zehar...
Andramari Plazatik hasita.
15:00ETAN BAZKARIA ANDRAMARI PLAZAN
(Eguraldi txarra eginez gero Institutuko kiroldegian)
Bazkarian (12€) izena emateko deitu
Arabako Bertsozale Elkartera: 675 70 79 71
17:00ETAN PUNTUKA NAHI DUTEN
PARTE HARTZAILE GUZTIEKIN
18:00ETAN KONTZERTUA: GIBELURDINEK
20:30ETAN BERTSO-PUNK
www.bertsozale.com/araba
bertso
eskola

## ZERTARA JOAN BERTSO-ESKOLARA?

– Lagunekin ondo pasatzera (adin guztietako taldeak daude)
– Bertsozaletzera
– Bertsotan egitera, bertsoak idaztera, gaiak prestatzera...
– Inprobisatzera...
– Euskaraz bizitzera, euskara lantzera, euskararekin jolastera...
– Herria eraikitzera, dinamizatzera...
– Bertso-saioak antolatzera

Bertso-eskolan bertsolariak daude, baina joaten diren guztiek ez dute jendearen aurrean kantatzen. Oso gauza ezberdinak egin daitezke bertso-eskolaren inguruan eta denak dira bertso-eskolako kideak.

bertso eskolara gozatuz

## NON DAUDE BERTSO-ESKOLAK?

Oion, Amurrio, Laudio, Murgia, Izarra, Kanpezu, Aramaio, Murua, Legutio, Gasteiz (gune ezberdinak) Zalduondo, Araia, Agurain



## ZER DA BERTSO-ESKOLA BAT?

Bertso-eskolan bertsolaritza lantzen da. Hizkuntzaren alde ludikoaren inguruan eratzen diren guneak dira, euskal kultura modu sortzaile eta aktibo batean bizitzeko.

Aisialdian haur, gazte zein helduen euskararen erabilera, bizitasuna eta kalitatea handitzeko egitura da. Era honetan, herriarentzako erreferenteak sortzen ditu, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eta erreleboa ziurtatuz, eta bertsolaritzaren eremu ezberdinak landuz (gai-jartzaile, epaile, bertsolari, bertsozale...).

Izan ere, astero bertso-eskolako kideak elkartzeaz gain, herrietan bertso-eskola egoteak bertsoaren inguruan hainbat ekintza egitea dakar, hala nola gabonetako eta jaietako bertso-saioak, bertso poteoak, txapelketako saioak.



# ZER DA ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA?

1993an sortu bazen ere, 1982an birjaio zen bertsolaritza Araban, orduan sortu baitziren lehenengo bertso-eskolak Gasteizen eta Aiaraldean.

Irabazi asmorik gabeko elkarte soziokulturala da eta bertsolaritza sustatzea du helburu. Bertsolaritzaren geroa ziurtatu asmotan lau alor lantzen ditu: bertsolaritzaren sustapena, transmisioa, ikerkuntza eta komunikazioa. Horretarako lan profesionala eta borondatezkoa uztartzen ditu eta gainontzeko elkarte eta herri instituzioekin elkarlanean lantzen ditu proiektuak.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartean integratuta dago Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako Bertsozale Elkarteekin eta Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nabarrako Bertsozale Elkartearekin batera.

arabako bertsozale elkartea

Benito Perez Galdos z/g
Amaia Zentroa
01002 GASTEIZ
945 010505
araba@bertsozale.com
www.bertsozale.com/araba



# EGIN ZAITEZ BERTSOZALE ELKARTEKO BAZKIDE

*Bertsozale Elkartearen egitekoa bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea da. Helburuak erdiezteko, ezinbestekoa da bazkideon laguntza.*



## BAZKIDE EGITEN BAZARA...

... Elkartearen egitasmoak gauzatzen lagunduko diguzu:

• Bertso-eskolak sustatzen ditugu.
• Hezkuntza arautuan bertsolaritza Irakasten dugu. Egun, 20.000
ikaslek lantzen dute bertsolaritza ikasgeletan.
• Bertso-udalekuaka ntolatzen dltugu.
• Bertsolarien plazaratzea eta bertsolaritzaren zabalkundea eragi-
ten dugu: Hitzetik Hortzera telebista-saioa.. Bertsoa.com, bertso-
plaza digitala, Bertso Eguna,
bertsolari txapelketak... antolatu eta garatzeaz arduraztzen gara.
• Bertsolaritzaren ikerkuntza eragiten dugu: datu-bilketaz azter-
ketaz eta garapenaz arduratzen gara.
• Xenpelar Dokunientazio Zentroan bertsolaritzaren ondarea
biltzen, antolatzen eta gizarteratzen ari gara 1990az geroztik.

... Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrerak
eskuratzerakoan beherapenak izango dituzu(herrialdeetako
txapelketak, Bertsolari txapelketa Nagusia. Bertso Eguna)

.... Urteko bertso-saio esanguratsuenak biltzen dituen Bapatean
audio-liburua doan jasoko duzu urtero etxean.

.... Bertsozalea berripapera jasoko duzu hilero doan
eta lehen eskutik jasoko duzu Bertsozale
Elkartearen berri.

| [illegible] | [illegible] |
|---|---|
| Norbanako bazkide arruntak | 45 euro |
| Elkarte laguntzaileak | 85 euro |
| 18 urtetik beherakoak | Ez dute kuotarik ordaintzen |

## Antolatzaileak

Bat-bateko 15 talde parte hartzaileak: Aramaioko Garratzak, Unibertsolariak – Aramaio, Urkabustaizko Bertso- Eskola , Bostibaieta – Legutio, Errexala – Gasteiz, Aizkorak Zorroztu – Gasteiz, Bapateroak – Gasteiz, Bertxotxoak – Gasteiz, Zabala eta estuak – Gasteiz, Sorginetxe – Agurain, Zeledonen seme-alabak – Zalduondo, Txandrio Bertso- Eskola - Arabako Errioxa, Aiaraldea, Amurrio, Mendialdeko Bertso-Eskola eta Arabako Bertsozale Elkartea

## Babesleak

## Kuadrillak

## Udalak

## Hedabideak

## Urteko jardueraren babeslea

## Babeslea · Argitaratzailea